قافلة بين سينمائيات

Maiatzaren 13tik 17ra

ZINEMAGILEEN ARTEAN

Emakumezkoek egindako zinemaren 8. Karabana

Golem Zinemak

Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbao

KCD Kultura Communication Desarrollo ONGD
www.kcd-ongd.org

CINE INVISIBLE 11 FESTIVAL INTERNACIONAL FILM SOZIALAK 2019 BILBAO
www.kcd-ongd.org

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

Bizkaia
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
klaketa
CINE RIZADAK
golem alhóndiga
Az Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbao
(H)ABIAN

"ZINEMAGILEEN ARTEKO" 8. KARABANA

WAR

Kultura, Communication y Desarrollo KCD GGKEko lantaldea ZINEMAGILEEN ARTEKO 8. KARABANAko lanak hautatzen hasi zenean, gauza batek atentzioa eman zigun: zenbait emakume zuzendarik gerra-historiak erakusten zituzten.

Gatazka armatu gehienak gizonek sortutakoak izaten dira, eta gizonek eurek kontatu ohi dituzte, gainera. Emakumeak ez dira izaten gerren ageriko protagonistak. Noiz edo noiz, emakumeek gatazketan jasaten dituzten eskubide-urraketak lehen orrira eramatea erabakitzen du norbaitek. Zergatik gertatzen da hori? Interes politiko edo ekonomikoak dira, ala inguruan duten testuinguru sozialean eta politikoan eragiteko inolako aukerarik ez duten biktimatzat erakutsi nahi dituztelako? Arrazoia edozein dela ere, inpaktua iragankorra izan ohi da. Baina horrek ez du esan nahi, historian nahiz gaur egun, emakumeek ez dutenik gatazka armatuetan parte hartzen, ez dituztenik beraien ondorioak jasaten, edo ez dutenik gai horri buruz hitz egiteko interesik.

Aurtengo Karabanan Europako eta Afrikako bost emakume zuzendarik gerrari buruz hitz egingo digute, ezohikoa bezain interesgarria den ikuspegi batetik. Gainera, maiatzaren 13aren goizean, Amal Ramsis-ek, zine zuzendariak eta Egiptoko Klaketa Arabe ekoiztetxearen fundatzaileak, EHUko ikasleei zuzendutako masterclass-a emango du bere ibilbide profesionalaren inguruan, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko aretoan.

KCD GGKEk eta Bilboko "Film Sozialak" Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiak "Gerrarik ez!" aldarrikatzeko aprobetxatu nahi dugu abagune paregabe hau.

Zain gaituzu!

J. Carlos Vázquez Velasco
Zuzendaria
Kultura Communication Desarrollo "KCD" GGKE
Bilboko "Film Sozialak" Zinema Ikusezinaren
Nazioarteko Jaialdia

"ZINEMAGILEEN ARTEKO" 8. KARABANA

W A R

Data: Maiatzaren 13tik 17ra
Tokia: Golem Zinemak - Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbao
Ordutegia: 17:00etan, 19:45ean, 22:15ean.
Sarrerak: 2,70€ emanaldiko.

EGITARAUA

ASTELEHENA HILAK 13 — 17:00, 19:45, 22:15

19:45ean. Gonbidatuentzako saioa.
(Telf. 946 024 668 / info@kcd-ongd.org)
KCD GGKEk eta Amal Ramsis zuzendariak aurkeztutako saioa.

*** Zeinu-hizkuntzako interpretearen zerbitzuarekin.**

- **YOU COME FROM FAR AWAY. Amal Ramsis**
  (Egipto, Libano, Qatar, Espainia, Grezia, Errusia, 2016, 83 min. / Errusiera, gaztelera, arabiera, azpitituluak gazteleraz)

  Tanit d´Angert saria pelikula dokumental onenari 2018ko Kartagoko Zinema Jaialdian.

  "Urrutitik zatozte" pelikulak familia palestindar baten istorioa kontatzen du. Aita, Najati Sidki komunista palestindarra, Francoren aurka borrokatzeko etorri zen Espainiara 1936an. Familia gertakari anitzen ondorioz saka-

banatu zen: Espainiar Guda Zibilaren, Bigarren Mundu Gerraren, Palestinako Nabkaren edota Libanoko Guda Zibilaren ondorioz. Familia honi gertatutakoa XX. mendean jazotakoen metafora zirela zirudien. Dulia (Dawlat arabieraz) Errusian galdu zen Espainiako Guda Zibilaren ondoren, eta senideengandik 20 urtez urrunduta egon zen.

ASTEARTEA HILAK 14 **17:00, 19:45, 22:15**

19:45ean. Anja Kofmel zuzendariak aurkeztutako saioa.
*** Zeinu-hizkuntzako interpretearen zerbitzuarekin.**

- **CHRIS THE SWISS. Anja Kofmel**
  (Suitza, Alemania, Kroazia, Finlandia, 2018, 90 min. / Frantsesa, alemaniera, ingelesa, gaztelera, azpitituluak gazteleraz)

  Urrezko Saria garapenerako proiektu onenari 2013ko Zagrebeko Animaziozko Pelikulen Nazioarteko Jaialdian. Dokumental onenaren eta pelikula onenaren sariak 2019ko Triesteko Zinema Jaialdian. Pelikula onenaren saria Zurich-eko Zinema Sarietan. Dokumental onenaren kategorian izendapena 2018ko Atenaseko Nazioarteko Zinema Jaialdian. Urrezko Begia, Urrezko Kamera eta Kritikaren Asteroko Sari Handia sarietan izendapena 2018ko Cannes-eko Zinema Jaialdian.

  Anjak txikitatik Cristhian Würtenberg-en (bere lehengusuaren) istorioa mirestu izan du. Balkanetako Gerrari buruz idaztera eta ikertzera joandako kazetaria izan zen

bera, 1992an hilda agertu zena. 25 urte geroago Anja gertakizun horien tokira joango da, bere lehengusuaren heriotzaren zergatia argitzeko asmoz. Ikerketan bere lehengusuaren lehenengo aztarnak batzen hasiko da, zeinaren lagunek "suitzarra" deitzen zioten.

ASTEAZKENA HILAK 15 17:00, 19:45, 22:15

19:45ean. Marie-Clemence Andriamonta zuzendariak aurkeztutako saioa.
*** Zeinu-hizkuntzako interpretearen zerbitzuarekin.**

- **FAHAVALO, MADAGASCAR 1947.**
  Marie-Clémence Andriamonta Paes
  (Madagaskar, Frantzia, Belgika, Cabo Verde, Qatar, 2018, 90 min / Malgaxe, azpitituluak gazteleraz)

  Munduko dokumentalak saria Montrealgo Nazioarteko Jaialdiaren 42. edizioan. 2018ko Kartagoko Zinema Jaialdiko lehen lanaren aipamen berezia.

  Madagascar-en, 1947an, sistema kolonialaren aurka aritzen ziren matxinatuei fahavalo izena jartzen zitzaien: Frantziaren "etsaiak". Azken lekukoek, lantza eta talisman hutsekin, basoan erresistentzian igarotako hilabete luzeak dakartzate gogora. 1940ko hamarkadan filmatutako artxibo irudiek bat egiten dute gaur egungo herrien eguneroko bizimoduekin. Iraganeko kontaketek eta Régis Gizavoren musika hipnotikoak garai horretara eramaten gaituzte, istorio erreprimitu horren berri izateko.

19:45ean. Amélie Legrand, soinu-bandaren konpositoreak aurkeztutako saioa.
*** Zeinu-hizkuntzako interpretearen zerbitzuarekin.**

- **RUDAR. Hanna Slak**
  (Eslovenia, Alemania, 2017, 103 min. / Esloveniera, azpitituluak gazteleraz)

  Aipamen berezia 2018ko Cleveland-eko Nazioarteko Jaialdian. Bi aipamen berezi Varsoviako Zinema Jaialdiaren 33. edizioan. Grand Prix – Golden Mimosa kategorian izendapena 2018ko Montenegroko Zinema Jaialdian. Atzerriko hizkuntzan egindako pelikula onenaren izendapena 2018ko Los Angeles-eko Hego-Ekialdeko Jaialdian. Publiko Gaztearen saria 2018ko Triesteko Zinema Jaialdian. Vesna saria zuzendari onenari, aktore onenari, zuzendaritza onenari Esloveniako Zinema Jaialdiaren 20. edizioan. Argazkigintza Onenaren saria 2018ko Los Angeles-eko SEE-fest-ean. Iraniar Kritiken Elkartearen saria Teherango Nazioarteko Zinema Jaialdian. Publikoaren saria Lessinako (Italia) Zinema Jaialdian.

  2009, Europar Batasuna, Eslovenia. 30 urtetan zehar, Alija meatzaria bosniar langile etorkinetako bat izan da. Krisia dela eta, meatzariak euren lanpostuak galduz joan dira eta Alija meatze abandonatu batera bidali dute. Bere zeregina, gerentziak enpresa saldu baino lehen, hobia hustuta dagoela ziurtatzea da. Meatzean Alijak Bigarren Mundu Gerra osteko exekuzio batzuen arrastoak aurkitzen ditu. Meatzea hutsik dagoela esa-

teko agintzen dioten arren, Alijak bere lanpostua arriskuan jarri eta hobia zulatzen jarraitzen du. Bertan exekutaturiko milaka pertsona aurkitu eta poliziari honen berri ematen dio.

OSTIRALA HILAK 17 — 17:00, 19:45, 22:15

- **COMMANDER ARIAN. Alba Sotorra Clua**
  (Espainia, Alemania, Siria, 2018, 80 min. / Kurduera, azpitituluak gazteleraz)
  Dokumental onenaren kategorian izendapena 2018ko Gaudí Sarietan.

  Siriako Gerrraren testuinguruan, Arian emakume komandantearen eta gidatzen duen emakumezkoen batailoaren helburua Kobane-ko biztanleria Daésh-en (Estatu Islamiarra) uztarripetik askatzea da. Txikitan, Arian indarkeria sexualaren biktimek jasotako tratu basatiaren lekuko izan zen. Bere kideak borrokaren benetazko zentzuaz ohartzeko ahaleginak egiten ditu Arian-ek: askatasuna emakumeen hurrengo belaunaldiarentzat. Komandantearekin eta bere tropekin igarotako denbora tartean, filmaketa intimista aurkezten digu Sotorrak, Arian-ek jasotako tiro-zaurien sendatze motelaren sekuentziak gehitzen dituena eta misio bat duen emakume baten erretratua dena.